

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ultzama



Aurkibidea

Udalerria: Ultzama

Sarrera



Euskara da bailarako jatorrizko hizkuntza, eta XX. mendera arte ingurua euskaldun elebakarra izan zen. 2001. urtean erdiek zekiten euskara, helduenek eta gazteenek. Azkar galdu da euskara Nafarroako udalerrri honetan. Mantsoago, baina ari dira berreskuratzen. (Argazkia Periko Zunzarrenena, www.ultzama.eus webgunetik hartua)

- **Biztanleak:** 1.663
- **Euskaldunak:** %48,97

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **14**
- Pasarteak: **1**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **1**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Barbara Arbilla Arbilla (1908)

Ilarregin (Ultzama) jaioa 1911n. Gurasoak ere biak ultzamarrak ziren: aita Ilarregikoa bertakoa eta ama Iraizozkoa. Bere ahizpa [Urbana](#)rekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1989an.

Urbana Arbilla Arbilla (1911)

Ilarregin (Ultzama) jaioa 1911n. Gurasoak ere biak ultzamarrak ziren: aita Ilarregikoa bertakoa eta ama Iraizozkoa. Bere ahizpa [Barbara](#)rekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1989an.

Fermin Arbilla Ezkurra (1948)



1948an Iraizotzen jaioa, Migelena etxean, herrigunean bertan, eta han bizi da orduz geroztik. 9 senidetan laugarrena, eta seme bakarra. Aita Iraizotzkoa, etxekoa, eta ama Urrozkoa (Malerreka); nekazariak eta euskaldunak biak. Eskolan hasita, guztiz galdu zuen euskara; hala ere, dena ulertzen zuen, eta osaba bati esker berreskuratu zuen. Horretan lagundu zion multil kozkorretan eta gaztetan ardiekin Belate aldean beste artzain ugariarekin topatzeak —haietatik asko, Alkotzkoak (Ultzama)—. Aitzitik, arreba gazteenek ez zuten ikasi.

Karmentxu Erbiti Arbilla (1945)



Urrikenia baserrian jaio zen. Ama zuen bertakoa eta aita, ganadu tratantea, Alkozkoa (Ultzama). Hiru ahizpatan erdikoa zen Karmentxu; haietan zaharrena Xole Erbiti izan zen (Nafarroako Aldundiko lehen euskara-teknikaria). Euskara etxean jaso zuten, bereziki amagandik. Etxera ezkondu zen. Urrikenia etxalde handia zenez, lur etaazienda askokoa, etxeko eta baserriko lanak gogotik egin behar izan zituzten hiru ahizpek.

Txaro Legarrea Razkin (1953)



1953ko urrian jaioa Dorrea etxean, herrigunean bertan, eta han bizi da orduz geroztik. Bost senidetan bigarrena (ahizpa zaharragoa eta hiru anaia). Aita etxekoa zen, eta ama Dorraokoa (Eroieta, Sakana); biak nekazariak eta euskaldunak. Txarok umetatik etxean lagundu izan zuen, eta 18 urtetan Bel gaztandegi industrialean hasi zen lanean, Iraizotzen. Gurasoek euskaraz egiten zieten arren, seme-alabak ez ziren ia euskaraz solasten («yolasten»), baina, taberna zutenez, Txarok euskara asko entzuten zuen garai hartan, eta horri esker eutsi zion, bai eta aitari entzutearen poderioz ere (amak ez baitzuen bertako euskara).

Francisco Olague Lizaso

Silvestre Ramoneda Oskariz (1943)



1943an Iruñean sortua. Ama ezkongabea zenez, 5 urte zituela Silvestre haurra kendu eta haurrik gabeko Ilarregiko bi senar-emazteri eman zioten, biak ere herrian bertan jaiok. Herriko ostatuko nagusiak ziren eta haiei laguntzen eman zituen lehenengo urteak. 14 urtekin kisuskile lanetan hasi zen, Iraizotzen. Bizpahiru urte geroago Berueten aritu zen, eta, geroztik, hango euskararen kutsua hartu zuen. Urte batzuz lan horretan enpresa txikietan ibili ondoren (Iruztunen, besteak beste), Ororbiako enpresa handi batean sartu zen, erretiroa hartu arte. Ezkondua (emaztea Igoakoa) eta alaba batekin.

Jose Luis Tornaria Bengoetxea (1942)



1942an Auzan jaioa, Urteñia etxean. Lau seme-alabetan hirugarrena. Etxean denda zuten eta aita bertan eta ilea moztzen aritzen zen; ama, berriz, etxeko lanetan. Biak herrikoak ziren. Ez zuten lurrik eta baliabide urrikoak zirenez, 14 urtetan lanean hasi zen Eltzaburuko harrobian. Geroago Arraitzen eta Iruñen, harik eta 28 urtetan bere kontura hartzea erabaki zuen arte. Gaur oraindik bere enpresan aritzen da (semeak darama). Auza kontzejuko alkate izan zen 4 urtez. Ezkondua (emaztea Larraitarkoa) eta seme-alabekin.

Txaro Villanueva Urtasun (1950)



1950ean Suarben jaioa Arotzekobordan, oinez herritik ordubete edo gehiagoko bidean. Gaur Iraizotzen bizi da, Fermin Arbilla senarrarekin. 11 senidetan hirugarrena (gizonezko bakarra). Bi gurasoak Suarbekoak zituen, nekazariak eta euskaldunak biak. Eskolan hastearekin, aita-amak erdaraz egiten («yolastatzen») hasi zitzaizkien seme-alabei. Euskara ia galdu zuen, baina ezkontzearekin eutsi ahal izan zion. 18 urteak bete arte baserriko lanetan aritu zen, adin horrekin Danonen hasi baitzen lanean, Iraizotzen. Etxearen behe-itiko aldean, lehenagoko ukuiluan, garai bateko bizimoduaren erakusgarri diren tresna eta objektu ugariaren bilduma ederra du, ongi gordeta eta zainduta.

Joxe Zenoz Zia (1943)



1943an Alkotzen sortua, berez Martinenea izena duen etxean (gaur egun Alejandroren etxea izena hartu du), herrigunetik mendi alderako bidean. Zazpi anai-arrebatan seigarrena; lau zaharrenak, emakumeak. Aita ikazkina zuen, etxekoa, eta, ama, herriko Martizeneko maiztartogia izeneko etxean sortua, nekazari-familia batekoa. Hamar urteetatik aintzina, amari laguntzen hasi behar izan zuen, patata-jorran, eta abar; hori zela eta, neguan besterik ez zen joaten eskolara. 15 urte zituela, adibidez, Alduden bizi zuen osaba bati belarretan laguntzen izan zen. 16 urtetan, oihanera joan zen lanera, Patricio Etxeberria enpresariaren esanetara. Han 3 urte eta erdiz aritu ondotik, 32 urteak arte Frantzian aritu zen, Alpeetan, eta, azkenik, etxera itzuli eta Oloki herriko zerrategi batean hasi zen lanean, erretiroa hartu arte.

Pedro Ziganda Tornaria (1944)



Guraso biak Auzakoak zituen Pedrok (Blas Pedro jaiotzako izenez). Zazpi senidetan zaharrena, 14 urterekin morroi hasi zen lanean, lehenengo herrian bertan eta gero Irunen. Ameriketara joateko nahia piztu zitzaion, eta 24 urterekin (1967an) Washingtonera joan zen (Moses Lake herrira). Trenean joan zen Madrilera eta handik hegazkinez NYera. Artzain eta bereziki behizain egin du lana, lehenengo zazpi urtetan nagusi batentzat eta ondoren bere kabuz. Chinon (Californian) ere egon zen behiekin lanean, hiru urtez. Hasiera batean hiru urterako joan bazen ere, Ameriketara geratu zen bizitzen. Alicia Zozaiarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten; alabak euskara ikasi du. Pedrori Auzan egin genion elkarrizketa, Macario anaiaren etxean, Euskal Herrian bisitan zegoela.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ilarregiko San Juanetako ospakizunak, (ULT-008/001)

San Juan bezperan sua egin eta gainera saltatzeko ohitura. Zer esaten zen: "Urrin gela, sarna fuera, ona(k) parnera, gaixtoak kanpora, biba San Juan bezpera". Elorria. Gurutze bedeinkatuak.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com